

Lagungarri txikiak

Nor konturatzen eta da uda denpora aberatsean kerizpean emoten dauan pagadi zabaleko ostro bakoitzaren bakoiztasunean edo dana loraz beterik dagoan udabarri epel ezeko lora bakoitzaren nortasunean? Desertuetako arbola bakarra estimagarria izaten da, gitxi egonik bere nortasuna aundiagoturik agertzen jakulako. Ugariak diran oianetako tantaiak berebiziko aproposak izan beariko dabe besteeengandik nabarmentzeko. Ugaritasunean antzeko asko agertzen dira eta nor egongo da ba bakoitzaren zerak bereizten? Sarritan banakan aintzakotzat artu be ez alako aukera zabalak dagozanean.

Nor konturatzen ete da bide ertzetik, eguzki eta izotz, euri eta aterri norabidea izentatzen dagoan txartelaz? Preminea dozunean baino ez dozu irakurten. Eta bide baztarretako testigu lagungarritxi txiki mutu orreek norainko bearrezkoak diranik nork esan? Derriorrezkoetan eta norbaitek pintura baltzez letrak ezkutatzen deutzuzanean baino ez zara konturatzan zelango zerbitzu ederra egiten dabenaz. Eta gauzakaz lantxe pertsonakaz be. Leku ezezagunean zagoz, ez dakizu nondik nora jo eta leenengo datorrenari eskatzen deutzazu laguntasuna. Bearrezko dituzun argitasunak eskatu, lekukoaren argitasunak jaso eta zeure egitamua amaitu dozunean nasai be nasai gelditzen zara. Nor izan da lagundu deutsuna, norabide zuzena emon deutsuna? Batek badaki... Inoiz baino geiagotan gertatzen da kanpotarrei norabideak oker emotea be, baina zureak zuzen emon deutsu. Nor izan danik be ez. Orrelako lagungarri txikiak ez dabe izenik eroaten, anonimoak ezaten dira.

«Ni pekataria» esaterik ez dogu atsegin, beste norbitek izentau gaizanik be ez, txalotzeko ez bada beintzat. «Zu aundi-ni aundika» olgetea, ostera, ezirik gozoenaren pareko gozo egiten jaku, adurra dariola jarten gaitu. Zerbait izan eta geure zertxo ori armaila gainetik erakusteak itzelezko zera emoten deusku. Olan da normalean. Badira zuzen edo oker, baina norbere izena beti aoetan erabili daien gura leukienak be. Eskaratzean gatza izan gura leukienak, bateon umea, ezkontzan andragia, ileetan ildakoa, labegaraietan tximinia, berbaldietan izlaria, urietan alkatea, erri txikian maisua, neguan edurra eta udan eguzkia... zuzen edo oker, baina bete autugai.

Txikia eta anonimoa izateak ez dau alperrikoa danik esan gura. Sarritan gainera, derriorozkoak dituzu, Zimentarria patxadaz orekan gelditu daiten azpian ipinten dan arritxoaz inor be ez konturatzen, bere zeregina orixe da izan be eta: an dagoanik inori be aitzen emon bagarik gauza guztiak euren lekuan ipintea.

Eguneroko bizitzea pozgarriago daiten, autobusean zoazela zure inguruko bidekideari arramuskadaka eraso bearrean irribarre gozoz ondo etorria emotea, edozein gauzatxotan bizipoza ereitea, ezebezkeria, lagungarri txikia bearbada, baina lagungarria. Orrelakoxe zerbait zan judearren alleluia abestia erbestealdiko mingotsean, gauza txikia, baina lagungarria.

Uskeriatzat, gauza txikitzat artzen diran bitartean, onak esango neuke, anka-pean ikutu txikia egiten dauan arantzaxoa edo are ondarra lez gogaikarri edo mingarri diranean, orduan izena be urtu leie, baina kalterako. Lagungarri txikiak zenbat eta anonimoago eta lagungarriago.